

BATZAR OROKORRA

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, 1992.eko maiatzaren 29an, arratsaldeko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Leuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria eta J.A. Arana Martija diruzaina, M. Azkarate, P. Charritton, X. Diharce, A. Iriogioen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen eta L. Villasante euskaltzainak; J.A. Arkotxa, M. Atxaga, R. Badiola, J. Garmendia Larrafiaga, X. Kintana, M.^a P. Lasarte, J.L. Lizundia, M. Zalvide, A. Zatarain eta J.J. Zearreta urgazleak; Gabriel Zapiainen familiako hauek ere bertaratu dira, espreski gonbidaturik: Maritxu Lodoso alar-guntsa, Itziar Zapiain alaba, Agustin eta Karmele Zapiain anai-arrebak eta M.^a Luisa Alzaga, Toribio Alzaga antzerkigilearen alaba.

Batzarrearen hasieran euskaltzainburuak zenbait aipamen egiten ditu, hots: Miren Azkarate euskaltzain oso berriari ongi-etorria; J.J. Zearreta Euskaltzaindiaren ekonomi eragile den urgazleari, bere aitaren heriotzagatik doluminak ematea; E. Erkiagari, Bizkaiko Foru Diputazioak hil honen 22an egin dion omenaldiaren berri, zeinetan Zuzendaritza egon baizen; egun berean, Hans G. Moukarovsky austriar hizkuntzalari euskaltzalearen bisita eta K. Etxenagusia urgazlearen istripu larriaren albisteak, sendatzea opatuz.

Gabriel Zapiain Urretabizkaia euskaltzain urgazle zenduaren nekrologi txostena irakurtzen du M.^a Pilar Lasarte urgazleak, bere bizitza eta euskal lanak zehaztuz eta goraiapatuz.

Jarraian, Jorge Errezuko euskaltzain ohorezkoaren nekrologi txostena aurkezten du Francisco Ondarra euskaltzain bere ordenakideak, zehazki haren bizi-zako gorabeherak eta euskalgintza lanak azalduz. Ondoren, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak "Aita Riezu, musikologoa" txosten osagarri bat irakurtzen du.

Goizeko bilkuraren berri ematen du segidan J.M. Satrustegi idazkariak, gai nagusi hauek azpimarratzen dituelarik: 1. Goizeko bilkuraren partiketa berriaren nondik norakoa, lehendabizi barne gai orokorrak aztertuko direlarik eta jarraian gai akademikoak, nahi duten urgazleek parte hartuz. 2. Euskara Batuko batzordeak proposaturiko *bait* partikula aditzari atxikirik idaztea onartu da; *-alde* onetsi da *-kalderen* ordeaz; *-arazil-erazi* aditzari loturik idaztea erabaki da, *-arazil-erazi*

aldaeratik zein hobetsi hurrengoan bozkatzekotan. 3. LEF batzordeak aurkeztutako hitz elkartuen osaera eta idazkerari onarpena eman zaio, *-a* organikoaren puntua salbu. 4. Bizkaiko Ikastolen *Ibilaldia 92*rako ordezkari J.A. Arana Martija izendatu da. 5. Bizkaiko Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolako bizkaierako ziurtagiria lortzeko epaimahikidetzat Juan Luis Goikoetxea urgazlea hautatu da. 6. Nafarroako Foru Parlamentuan euskarari buruzko batzorde berezian Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzako ordezkariak deituak izan direla, Akademia J.M. Satrustegik ordezkatu duelarik. Euskaltzainburuak, “Le français est la langue de la République” proposatu dela Frantziako Asanbladan eta Hezkuntza eta Kulturako ministroari kontrako iritzia agertuz egin dion gutunaren berri eman du.

Kontu emate honen amaieran X. Kintana urgazleak goizeko bilkuraren partietaz hartu den erabakiaren aurrean bere desadostasuna agertu du.

Dagozkien batzordeen azalpena. Lehendabizi euskaltzainburuak LEF azpibatzaordeak burutu duen lana eskertu du.

Onomastika batzordeak heldu den udan dituen Jardunaldi biren berri ematen du J.L. Lizundia batzorde horren idazkariak, hots: uztailaren 17an, egoitzan exonimiaz izango den jardunaldia, lehendabizi, eta irailaren 2tik 4ra, Nevadako Unibertsitateko “Basque Studies Program” delakoaren zilarrezko etzieiak ospatuz eta V. mendeurreneko Batzordearen laguntzaz izango diren Ameriketara eta Filipinetakoa euskal onomastikari buruzko Jardunaldien egitarauaren laburpena, bigarrenik.

Pedro de Yrizar euskaltzain ohorezkoak egindako *Morfología del Verbo Auxiliar Vizcaino. (Estudio dialectológico)* izeneko liburuki biak Euskaltzaindiak argitaratu ditu BBK laguntzaz, gaur plazaratu dela aditzera eman delarik.

“Alfonso Maria Zabalaren *Gabon gau bat* izeneko kontuaren sustraiak kondaira aldetik” izeneko euskaltzainen txandako txostena irakurtzen du Antonio Zavala jaunak. XIX. mendeko gipuzkoar apaiz honen zenbait xehetasun eskaini ditu. Jarraian goian aipatu ipuinaren sustraiak nondik nora aztertu ditu zehazkizun ugari eman, adibide zenbait gehitu eta garaiko beste kontu batzurekin gonbaraturik, herri-kontakizunen inguruan aritu izan da txostengilea. Azkenez, ohar gisa, eremu honetan ikertu eta lan eginen dutenen laguntza eskatu du.

“Euskal izenondoaren kokapenari buruzko zenbait ohar” Juan Carlos Odriozola berak eta Alberto Cantero Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslekidearan artean egindako txostena irakurtzen du Odriozola euskaltzain urgazle berriak. Izenondoaren inguruan izandako bibliografia eta eztabaiden laburpena egin dute hasteko. Jarraian hurrengo izenlagunon ikerketa historikoa egin dute, alegia: *-ko*, *-dun*, *-(i)ar*. Ondoren hitz eratorriak —izenondoaren ingurukoak— analizatu dituzte zerrenda luzea eskainirik. Gero hitz-elkarketa, ustezko salbuespenak eta ondorioak eman dituzte. Ostean zenbait euskaltzain oso eta urgazleren artean elkarrizketa bizia sortu da.

Eta gai honekin bukatzen da batzarrea.

J. Haritschelhar
euskaltzainburua

J.M. Satrustegi
idazkaria